

“FEDEA GAUR EGUN TRANSMITTZEA”

Aurtengo Euskalerriko gotzaiñen pastoral idazkia aurkeztu nai dot laburbilduz, eta ondoren gogoetaren bat erantsi. Gure gotzaiñak aspaldi danik dabiltz aztertzen, eta iragarri naian, gure kristau fede inguruko gai eta arazorik beiñenak. Bai beintzat 1986.eko *Jesu Kristoren Jainkoagan sinestea gaur egun* pastoral idazkitik asi eta onantza. Aurtengo idazki onetan agiri diran gaiak, era batera edo bestera, or izan dira aurreko idazkiotan barrengo ardura eta bultzagarritzat. Idazkiaren asikieran gogoratzen daben orain lau urteko *Sinismen biziagoaren zerbitzuan* idazkian berariz (1997).

Fedea transmitidu edo elarazi edo besteei eskuratu. Idazkiak egitura oso argia dau. Iru parte: Leenengoan gure inguruko kultura, giza izakera eta balorapena da gaia. Bigarrenak zati bi ditu: Zer dan fedea, eta zer esan nai dauan fede au transmititzeak. Irugarren partean fedea transmititzeko lekuak eta bideak aztertu nai dira.

Irurak dira egokiak eta bearrezkoak. Leenengoan aipatzen dan gizarte eta kultura giroak baldintzatzen dau geroko idazkiaren gogoeta, eta batez be irugarren parteko fede-transmisioaren bideak billatzea. Jakiña, azken onetara eldu nai dau idazkiak: fede-transmisiorako biderik egokienak aurkitzera.

I. Leenengo partean aipatzen diran kultura aldaketak eta eragozpenak ezagunak dira. Idazkiak balioak transmititzeko oztopoak ditu gogoan azterketa au egikeran. Balora guztiak, eta euren artean ez gitxiago kristau fede-balorak, aurkitzen dabe eragozpena gizon eta emakumeagana eltzeko. Transmisio krisis orokor au gaurko bizikeraren presatik sortzen da, eta barriak eta jozoerak eltzen diran lasterretik, eritzien aniztasunetik (eritzi ugaritasun onek bakoizkeria eta indiferentzia sortzen dituala: bakoitzak uste dauana pentsa eta egiten dau, eta gitxi gorabera bardin antzekoak dira eritzi guztiak). Guzti onek familiari eta irakaskuntzari baloreak transmititzeko gaitasuna murrizten deutse. Gaur, komunikabideak lortu dabe mentalidadeak (bizitzako baloreak) moldatzeko indarra. (Zer dan balio-tsua, zer dan ona eta interesgarria, zer zaarkitua eta zer modernoa, esate baterako).

Familian. Guraso asko dabiliz au dala ta arduraz, baiña euren kristau fedea transmititzea neketsu egiten dabe. Beste batzuk, askatasunaz daben sensibilitateagaitik, uste dabe kristau fedea seme-alabei komunikatzea askatasun orren aurkakoa dala. Beste batzuk noraezean aurkitzen dira seme-alabak fedepraktika izten dabenean. Guraso asko baliapide barik sentitzen dira inguruan asmatzen daben kultura aldakuntzaren aurrean. Ainbat gusasok, ogeiota amarretik berrogeita amar urtera bitartekoak, ez dabez seme-alabak kristau federa bideratu. Batzuentzat, ostera, ain zuzen ere egoera zail oneek izan dira euren fedea arazteko abiapuntu, obeto ulertuz eta biziz, eta beste batzuekaz alkarbanatuz (8-9 zb).

Gazteen artean. Gazterik geienentzat erlijioari buruzko ardurea ezezaguna edo bitxia da. Batzuk familian eta Eliz-alkartean arturiko kristau eziketaren ondoren aldendu egiten dira fede ospakizunetan parte artzetik. Beste batzuk, azken amarkadatan, kristau tradiziñotik urrunduta bizi dira. Eta kristau alkarreak eratutako ekintzetan biotz-zabal parte artzen daben batzuk be ez dabe fede-arazoa aurrez aurre artzen. Jakiña, badiara benetan fedea billatzen dabenak, beronegaz konprometi-

tzen diranak, eta azi ta garatu egin nai dabenak. Oneek elduen fide-bizipenean eragin pizgarria dabe (10 zb).

Irakaskuntzan. Gure gizartean ikastetxeak ikasleen garapen personalari ekarri daikeoen laguntza beste eragin batzuk mugatua eta baldintzatu da zearo, batez be eziketa moral eta erlijiosoari dagokionean. Duda barik, komunikabideak dira emen batez be gogoan eta, orokorki, "kalean" bizi dan aniztasuna, balore pluralismoa (11 zb).

Giro guzti onek katekesian dituan ondorioak aztertzen ditu idazkiak jarraian, utsuneak betebearra, etabar. Ez doguz emen zeazten (12-14).

II. Bigarren partea da, gogoeta aldetik, sakonena. Transmisio bide egokiak asmatzeko (irugarren partearen egin-kizuna izango dana), fedea komunikatzea zer dan argiago ikusi bear da; eta fede transmisioa ulertzeko, lcenago fedea bera zer dan zelanbait ulertzen aalegindu bearra dago.

Onetan saiatzen da, beraz, idazkia, fedea zer dan adierazoten, "Zer da Jaikoagan sinestea?" itaunari erantzunez. Sineste au gutiz diferentea danez eta, beraz, zuzeneko erantzun simple batez aditu ezin daitekkelako, idazkia aren alderdi batzuk deskribatzen saiatzen da, ulertzen emoteko.

Sinestea *ez da jakitea* beste barik, zerbait jakitea bearrezkoa izan arren. Ez da ideia moltzoa izatea. Ez da aalegin intelektualaren ondorioa (18-19 zb).

Sinistea *billa ibiltea* da: gure izatearen sustraia edo zentzua billatzea, bizi dogun errealidadean sakonduz, eta orrela barruenean dagoan misterioari geure izatea zabalduz (20 zb).

Sinestea *aurkitzea da, alkar-aurkitzea*: Jainko personalagaz artuemonetan jarrea. Barnerik barneenean aurkitzen dodan Jainkoagaz (21-22 zb).

Sinestea *fidatzea da (eta arriskatzea be bai)*: askatasunez fidatzea esan nai dau, ez arrazoiak beartuta. Gure bizitza Jainkoaren biziari estu loturik dagoala asmatzea (23-24 zb).

Sinestea *onartzea da*: Jainkoaren billa dabillena onetaz jabetu daiteke: Jainkoa bera dabillela leenagotik beraren billa. Jazoeren eta personen bidez egiten da presente. Geure barrutik eta kontzientziaren barrutik egiten deusku dei. Jaungoikoaren eskeintza au gure askatasunari zuzendua da (25-26 zb).

Sinestea *fedea besteekin bizitzea da*: besteekin batera biziz da onartzen, janaritzen, arazten, egiaztatzen, sendotzen, ospatzen, eta komunikatzen. Au familian, alkartean, Elizan gertatzen da, eta orrela nire fedea gure fedea da batera (27 zb).

Sinestea norbera *konprometitzea da*: fedearen benetakotasuna bizitzen saiatuz bakarrik egiaztatzen da. Jainkoagan sinesten dodala eta bizitzako muintzat onartzen dodala probateko erarik onena bizitzan beraren gidaritzea onartzea da (28 zb).

Sinestea *gurtzea da*: Jainkoa absoluto bakartzat artzea, beraren aurrean inolako sasijainkorik ez onartzea. Neure bizitza berari sagaratzea (29 zb).

Sinestea *maitatzea da, zerbitzea*: Jainkoa ezagutu dauanak maitasuna ezagutu dau, eta maitasunaz erantzuten dau, maitasun onek besteakana zabalik bizitzera berez eta batera hultzatzen dauala (30 zb).

Zer da fedea transmititzea?

Besteei lagun egitea da, Jainkoak onginaiez eskeintzen deutesen doaia askatasunez onartu dagien. Lagundu, barri emon, bide emon. Ez dago gure esku iñorengan benetako fedea sortzerik. Laguntza ori jarraian datozen egintzak burutzen dabe:

Fedea transmititzea *kristau-bizitzaren testigantza urbillla* eskeintzea da. Biak dira emen guztiz garrantzitsuak: "kristau-bizitzaren testigantza" eta "urbilla". Kristau zentzunez beteriko bizi-

tza bera da erakargarriena, esanguratsuena. Eta urbiltasunak bizitza alkartasuna esan nai dau. Gure fede bizitzaz eta jarreraz bestearen barren bizitzara, egiazko izatera urreratzea (31 zb).

Fedea transmititzea *galderak sortzea* da: Bizitzako itaunak, bere izateko barrukoenak. Fede-bidera prestatzeko, lagun bakoitzari bere bizitza sakontasunez bizitzen lagundu bear jako. Bizitzako azalean eroso eta asebetarik bizi dana ez da inoz fedearen benetako balioa eta zentzua ezagutzera elduko (32 zb).

Fedea transmititzea *nork bere esperientzia personala kontatzea* da. Gogoeta korapilosuak egitea baino bide egokiagoa dogu au (nai ta gogoetak be bearrezko izan, idazki beronek erakusten dauan lez). Esate baterako, au esan nai da: "gure poz eta penetan beraren presentzia zelan bizi dogun adieraztea, gure bearrianetan beragana zelan jotzen dogun, zailtasunetan beragan zelan dogun ustea eta itxaropena, illunpetan beraren argia zelan billatzen dogun, larritasunean beraren ba-kea zelan billatzen dogun...adieraztea" (33 zb).

Fedea transmititzea *Jainkoaren egiazko aurpegia ezagutzen emotea* da: Jesusengan ezagutzen dogu Jaungoikoaren arpegia. "Gizakiaren salbamena baiño billatzen ez dauan Jainkoa; biziaren aldekoa dana; gizakiaren bearrik funtsezkoenetatik ur dagoana; pobre eta baztertuen Jainkoa; gure istorian zuzentasun, senidetasun eta bakezko erreinua ezarri nai dauan Jainkoa; gure salbamenerako kurutzeratua; biztuerara eroaten dauana" (diño, aipaturiko 1986.eko idazkitik esaldiok arturik) (34-35 zb).

Fedea transmititzea *askatasuna errespetatzea* da: Jaungoikoagana zabalik dagoan gizakiak aske izan bear dau, ezetariko inposaketa barik. Fedeak errealitaterik jatorrena, personalena, egizkoaena izan bear daualako. Jainkoak berak billatzen gaitu, berak eskeintzen dau doaia eta grazia (36 zb).

Fedea transmititzea *salbamen-bidetzat aurkeztea* da: Kristau fedea Kristogan sinestea danez, Jesu Kristo berbiztu eban Jainkoagan sinestea da. Fedeak bizi-alkartasuna sortzen dau gure eta Jaungoikoaren artean, batasun pozgarria. Orregaitik, fe-

dea salbamen-bide da, bere bizitza illezkor, santu eta zoriontsuan sartzeko gonbitea egiten deusku Jaunak eta (37 zb).

Fedea transmititzea *alkarrizketarako gai egitea* da: Itza entzunez eta geure bizitza oiñarriztat arturik ezarten da alkarrizketa. Auxe dogu otoitza. Bizitzako gertaeren bidez egiten deusku Jaunak berba. Bizitzako bearrizan, eskaera, galdera, indar edo-ta makaltasunean entzun bear dogu Jainkoak egiten deuskun deia. Eta or gertatzen de, era askotara, gure abotsa be (38 zb).

Fedea transmititzea *Elizaren fedea aurkeztea* da: Fedea aukera personala izanda ere, ez da bakarkakoa. Jesusen alkartearen bidez datorkigu, geure egiten dogu Elizaren laguntzarekin; alkarteak tinkotzen gaitu berorren egiazkotasunean, eta besteen fede-esperientziak aberastu egiten gaitu (39 zb).

Fedea transmititzea *billaketan bidelagun izatea* da: Aldaketa andiak izan dituen sasoiari bizi gara, fedearen transmisioan krisi orokorra dauan egoerara eldu gara. Ez dira gitxi billa dabiltzanak. Laguntza-zerbitzu au eskeintzeko naitaetzkoa dogu enpatia, barne-ulermen gaitasuna garatzea, bestearen lekuan jartea. Kasu askotan, garrantzitsuagoa da entzuten jakitea, besteen arazo eta kezkek onartzea (40-41 zb).

III. Irrugarren zatian, leenengo, danok garala fedearen elarazle baieztatzen dau idazkiak. Eta gero, aparteko eraz familiar, gizarteko ingurumen desbardiñetan eta Eliz-alakarteetan burutu bearreko fede-komunikazioari buruz ekiten deutso. Ainbat azterketa, oar eta proposamen erazko eta onuragarri egiten ditu. Eta soluziobideak aurkitzeko oraindiño azterketan eta gogoetan aurrera jo bearra erakusten. Ez da amaia idazki au, aurrera egin bearraren deia baiño, erne eta arduratsu egonik. Ez naz emen be gelditzen aipamen zeatzagoak egiten.

Berba gitxitan laburtu dot idazkiaren edukia. Ideiarik beiñenak batzen aalegindu arren, zalantza barik aren aberastasuna

murriztu dot. Gaur gai onei buruz pentsa eta idazten dan gogoetaren oiartzun argia dogu idazkia.

Nik uste olako idazkiak gure elizetan eta taldeetan irakurri, ausnartu, eta alkarbanatzeko erak billatu bear ko litzakezala. Bestera, urtero itxaroten dogun beste idazki bat dogu, ederra, baiña or geratzen dana. Ez litzake oba izango, esaterako, idazki batetik bestera tarte luzeagoa iztea, urtero olako agerpen barririk egin barik? Kontuan artu daigun, gure gotzainak, alkarturik, zenbat idazki eder idatzi dituen ainbeste urtetan. Esan daiteke egiaz merezi eben eragiña izan dabenik?. Au, baiña, zabalkunde eta aztertze plana falta dalako da. Idazkiak gogoeta eta aplikazio plan baten barruan idatzi bear ko litzakez, Eliz-literatura ainbeste ugaritu barik. Mingarriena au dogu: olako aalegiñaren ostean, gure gotzainen gogoetak bear leuken ondoriorik ez izatea.

IV. Gure azken oar batzuk.

Idazki au kristau fedearen transmisioaz arduratzen da, arrazoiz. Gizarteko aldakuntzak, bizikerak eta balorapenak, eta sortutako indar barriak, guztiz naastu ditue leengo erlazioak. Izan be, "aldaketa oneetan au gertatu da: gauza guztiak fedearen transmisioa egiten laguntzen ebela zirudien gizartetik, fedearen transmisioan krisi orokorra nabarmentzen dan beste gizartera igaro garala" (40 zb). Azpimarratu dogu leenengo zatian egoera arduragarri au: "Ogeita amar eta berrogeita amar urte bitarteko aita eta ama ugari, ainbat arrazoigaitik, ez da arduratu izan seme-alabei kristau-fedearen leen astapenak emoteaz: onek gertaera soziologiko barria sortu dau gure artean: seme-alaben erlijio-sozializatzerik eza. Pastoral erronkarik nagusienetakoa da egoera au gaur egun gure Elizarentzat" (9 zb).

Ez dago onetaz ezer gaiñeratu bearrik. Argi dago idazkiak balore eta fede transmisioari buruz agertzen dauan giro kulturala eta erlijiosoa. Fede transmisioak daukazan eragozpen ba-

rriak guztiz dira garrantzizkoak, komunikazio barik ez dago ezer eta, naiz ta berez mezurik bikaiñena izan. Au olan dala, beste au be beti dogu pentsagarri, gauza barria izan ez arren. Pentsa bearreko arazoa ez da sortzen edo amaitzen transmizioan. Transmisioan mezua, edukia, komunikatzen da. Onen arazoa ondo daki gure Elizak. Orregaitik, argitu nai izan dau emen be Jainkoagan sinestea zer dan. Eta idazki onetan aipaturiko 1986.eko idazkia, Jaungoikoaren benetako aurpegiari buruzkoa, orretaz izan zan. Baiña bein ta barrero fede arazoe-tara etorriaz, eta oraingoan, bere transmisiora, ezin daiket nik eduki arazoa azpimarratu barik itzi. Bearbada esan daiteke, egitez, transmisioan, eta onen oztopoetan, gaur edukiaren arazoa dala leenengo eta larriena. Onen aipamen bat dogu, esate baterako, esaldi au: “Fedea transmititzea kristau-mezuaren muina, au da, Elizaren kredoaren proposatzea da; baiña ez formula uts bezala, baizik eta ikuspuntu barri batetik, au da, Jainkoaren ikuspuntutik, beste era batera bizitzen lagunduko deuskun erreferentzia eta arrazoiz beteriko mezu bezala proposatzea” (39 zb). Egia esan, “Jainkoaren ikuspuntutik” esateari, bearbada larregi eritzi daikio batek. Ez dago gure esku ikuspuntu ori, olan. Baiña, dana dala, esaldi onetan mezua be- ra era barrian ikusi bearra agiri da, bizitzan erreferentzi eta lagungarri izan daiten.

Transmisioaren eragozpenak kanpotikoak dirala geiago esan daiteke, berez: mezu eta artzaillearen artean jarten diran oztopoak. Baiña orain gogoan doguna mezuari berari dagokio. edukiari. Inkreentziaz dagigunean, sekularizazioaz eta erlijioaren desagertzeaz dagigunean, edukiaren arazoa dogu gogoan. Zergaitik erakusten eben fede-edukiak, aldi batzuetan, berezko indarra, eta orain, antza danez, ostera ez? Zergaitik ez da sentitzen, leengo eran eta eiñean, eduki orren bearrianik, mezua- ren bearrianik? Zergaitik galdu dau, askorentzat beintzat, inter- esa edo zentzua leengo mezuak? Onen aipamena badogu aur- tengo idazki onetan: “Kontua zera da: ea kredoaren eduki orrek zentzurik dauan ala ez guretzat, emen eta orain.

Geureganatu egin bear dogu, bizitza biurtu, gaurkotu” (39 zb). Gaurkotze ori ez datza azaleko margoan, “zentzuaz” dagi tes-toak eta. Ez dago gaurkotzerik, gaurko itaun eta barne ikuspegiak asmatu barik, eta fedearen mezuan, bere errealitatean murgildu barik. Kristau fedearen errealitate onek gai izan bear dau gaurko galdera eta ikuspegi orreen artean salbamen mezu izateko. Naita zuzenean idazkiaren gaia ez izan, agiri da ardura sakon au aretan: “Balio eta erreferentzien zabalkundearen gizarte-krisiak zera adierazten deusku garbi-garbi: betiko gure fedea barrero pentsatu, ulertu eta formulazio barri batean emon bearra daukagula alderdi askotan gaurko baldintzen argira” (15 zb).

Duda barik, egin izan dira kristau fedearen mezua, onen muina, obeto ikusteko aalegiñak. Au Eliza orokorraren partez, gure gotzainen partez, eta Elizako pentsalarien arduraz. Bide andi pozgarria egin izan da. Alan be, ezin daikegu esan kristau fedearen argiak bere indarra jarri dauanik. Au dogu oraindiño, eta bearbada beti, agortu ezineko gogoeta.

Oni lotuta dago azpimarratu nai dodan beste oar bat. Idazkiak zer dan “fedea” argitu nai dau. Geien baten “fides qua”, sinestea bera, dauala gai esan daiteke. Arrazoiz egiten dau au, ain zuzen be gaurko eragozpenak or daukalako sus-traia (eduki zeatz, eder eta argiena izanda be, siñestearen beraren ezkutua dago beti). Baiña, batera, “fides quae”, edukia bera be aztertu bearrekoa dogu naitanaiez. Idazkiak badau gogoan alderdi au, Elizaren kredoaz, edo Jesukristoren Aitaz, eta-bar, dagianean. Beraz, biak dira batera amai-ezineko gogoeta gai guretzat: sineste-aktoa, eta sinesten dan errealidadea. Jakina, ez dago sineste aktorik eduki barik. Baiña guk kristau edukia dogu gogoan. Eta zer dakar kristau mezuak? Zer dakar Jesukristok?

Aipatu dot gorago idazki onek 1986.eko idazkitik arturiko erantzun bat. Baiña esan geinke ulertu dogula geure fedea, beronen ondorio eta alderdi guztietan, aren zentzua galdu dabe-

nei komunikatzeko eran? Fede-unibersoa, ez alderdiren bazuk, besteak leengoan jarraitzen dabela. Eliz-pentsamentuak aalegin eta aurrerapen aundia egin, autortu dot. Baiña egitekoa eskerga zan. Eta onetan jardun bear dogu siñestedunok oindiño. Ori egin ondoren, azkenean, barriro be “fides qua” orretara jo bearke dogu, era onetan: Jesukristok dakarrena azken baten otoitzean bakarrik adituko dozu, edo Jesukristo nor dan otoitzean bakarrik artu daikezu. Otoitza,emen, fede-aktoaren beste izen bat dogu. Au ez da guretzat atajurik, gure pentsa bearretik libratzen gaituanik. Baiña onetaz jabetzen gara: dana dala, Jaungoikaoren mundua, izatekotan, ezin daitekela beste gauza guztien eran eta artean artua izan; ez litzake Jaungoikoa izango. “Fedea” edo “otoitza” esaten dogunean, auxe esan gura dogu: Jaungoikoa artzeko, ari baietza emoteko, berataz konturatu eta norbera emoteko, guztiz beste giza jarra barri eta bakarra bear dala, eta orretan gertatzen dala bakarrik aren zelanbaiteko presentzia.

Oar oneek beti dira bearrezko, gure jainkoazko jardunaren baldintza eta izkera biurtu dira eta. Baiña, bitartean, aurtengo idazki au, transmisioari buruzkoa be bearrezkoa zan. Arazoak ditugula ta , sinestedunak ezin gaitেকেz geldi eta geldo geratu, gauzak argiago ikusi arte. Fededunak, illunpean , makaltasunean be, bere fedea komunikatzen dau. Ibilli gabiltzala egiten dogu gogoeta, aal dogunik eta erarik egokienean kristau mezua eskeintzen dogun bitartean.

Luis Arostegi